

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Hiri hondakin solidoak eta antzekoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartzea

Jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartu da hiri-hondakin solidoak eta antzekoak garraiatu eta ezabatzeko zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen udal ordenantza fiskalaren aldaketa, eta aldatutako edukia argitaratu da.

Hurrengo kuotak hiru hilean behin ordainduko dira.

6. artikulua. Tarifak eta aplikatu beharreko arauak

Epigrafeak

1. mota. Etxebizitzak: 125,47 euro.
2. mota. Enpresak.
 - 2.1 500 metro koadro baino gehiagoko enpresak: 991,71 euro.
 - 2.2 500 metro koadro baino gutxiagoko enpresak: 807,05 euro.
3. mota: Zerbitzuen sektorea.
 - 3.1 Jarduerarik gabeko merkataritza-lokalak: 169,23 euro.
 - 3.2 Saltokiak eta bestelako jarduerak: 188,27 euro.
 - 3.3 Landetxea, landa-apartamentua eta antzekoak: 250,94 euro.

8. artikulua. Hobariak

1. Etxeko konpostaje-sistemari atxikitako pertsonaren bat erroldatuta dagoen bizitegi-izae-rako higiezinari tasaren zerga-oinarriaren ehuneko 10eko hobaria eman ahal izango zaio.

2. Udalak gaika eskaintzen dituen edukiontzietan materia organikoa biltzeko sistemak era-biltzen dituzten pertsonen eta merkataritza-jardueren eta antzekoek tasaren zerga-oinarriaren ehuneko 10eko hobaria izango dute. Behin sarbidea kontrolatzeko sistema instalatzen denean, ez da beharrezkoa izango, bilketa organikorako edukiontzitik urtean gutxienez ehun irekitzen direla ikusten denean aplikatuko baita. Hobari bera izango dute aurreko urtean elikagai-hondakinak biltzeko interes publiko eta sozialeko beste erakunde batzuekin sinatutako lankidetzak-akordioak dituzten erakundeek. Aurreko bi hobariak aldi berean gertatzen badira, ehuneko 15 aplikatuko da.

3. Hobariak ekitaldi bakoitzeko urtarilean aplikatuko dira, interesdunek eskatu ondoren, Aiaraldeko Kuadrillako Ingurumen Sailaren aldeko txostenaren bidez egiaztatu ahal izateko eta urteko lehen hiruhilekoko ordainagiria igorri aurretik ebatzi ahal izateko.

Okondon, 2025eko abenduaren 19an

Alkatea

JON ESCUZA DEL CAMPO